



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

15/2021 Foru Agindua, urtarrilaren 14koa, zeinaren bidez onesten baita makinaren edo aparatu automatikoen bidezko jokoaren gaineko tributuan 2020ko laugarren hiruhilekoagatik egin beharreko likidazioaren kuota finkoek izango duten hobaria.

Maiatzaren 5eko 2/2020 Foru Dekretu-Araua, Covid-19aren osasun krisiaren ondorioz zerga arloko neurri osagarriak ezartzen dituenak, xedatuta utzi zuen 4. artikuluan ezen Gipuzkoako Lurralde Historikoan Jokoaren gaineko Zerga arautzen duen otsailaren 1eko 1/2005 Foru Araua 12. artikuluan aurreikusten dituen kuota finkoak hobaritu egingo direla makinak edo aparatu automatikoak ustiatuz egiten den jokoaren gaineko tributua likidatzen denean.

Horrela, 2020ko lehen hiruhilekoko likidazioari dagokion kuotaren zatirako, 100eko 15eko hobaria onetsi zen, eta 2020ko bigarren hiruhilekoari dagokion zatirako, ordea, 100eko 100eko hobaria ezarri zen.

Gainera, azken xedapenetako lehenengoak 3. apartatuan ezartzen du Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua baimendurik geratzen dela aldi baterako luzatzeko, foru agindu bidez, makinaren edo aparatu automatikoen bidezko jokoetan aplikatzen diren kuota finkoen hobarien aplikazioa, bai eta haien zenbatekoa murrizteko ere, baldin eta hobarien onarpena ekarri zuten aparteko zirkunstantzien jarraipenak edo deseskalatze prozesuak hala justifikatzen badute.

SARS-CoV-2ak eragindako kutsatzeen hedapena geldiarazteko deklaratura dagoen alarma egoeraren barruan hartu diren prebentzio neurri espezifikoek –egoera hori urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak deklaratu zuen eta azaroaren 3ko 956/2020 Errege Dekretuak luzatu, 2021eko maiatzaren 9ra arte, hasera batean–, lehendakariaren urriaren 26ko 36/2020 Dekretuaren bidez hartutako neurriek (haren bitartez, osasun publikoko prebentzio neurriak hartzen dira alarma egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko), dekretu hori aldatuz gerora eman diren xedapenek, eta, azkenik, foru agindu hau egiteko unean indarrean dauden neurriak bateratu eta eguneratzeko onartutakoek, justifikatzen dute aplikatzen den hobariaren portzentajea 2020ko laugarren epealdian hartutako neurrietara egokitzea, eta, batik bat, neurri horiek ostalaritza eta jatetxe sektorean izan duten eraginera.

Gaikuntza horretaz baliatuta, foru agindu honen xedea da makinen edo aparatu automatikoen bidezko jokoaren gaineko tributuaaren kuota finkoari 100eko 70eko hobaria aplikatzea 2020ko laugarren hiruhilekoaren likidazioan.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Makinen edo aparatu automatikoen bidezko jokoetan aplikagarri diren kuota finkoak hobaritzea.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan Jokoaren gaineko Zerga arautzen duen otsailaren 1eko 1/2005 Foru Arauaren 12. artikuluaaren arabera, ausazko jokoak egiteko balio duten makinen edo aparatu automatikoen bidezko jokoengatik 2020ko laugarren hiruhilekoaren likidazioan exijitzekoak diren kuota finkoen zatiari 100eko 70eko hobaria aplikatuko zaio.

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2021eko urtarrilaren 14a.—Jokin Perona Lerchundi, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(230)